

JOKUZ BLAI

*Tablero bakar batekin, hiru mahai joko
ezberdinetara jokatu ahal izango
duzu! Prest zaude?*



Bersatila



Ezberdina







Berritzailea



Eraldakorra



Joku bat , mila aukera

 jokuzblai@gmail.com  949 00 11 990   [@ejokuz_blai](https://www.instagram.com/ejokuz_blai)

LaSalle Berrozpe
LSB
Andoain

Balio proposamena

Gure enpresaren helburua, mahai joko berritzaileak sortzea da. Gure iritiz, formatu honek bezeroen jakin mina sortuko bait du.

Gure produktuak **3 joku** ezberdin eskainiko ditu: **damak**, **xakea** eta “hundir la flota”-ren hegazkinen bertsio bat, **hegazkina lurreratu**. 3 jolasak tablero berberarekin jolastu ahal izango dira.

Horretarako betiko mahai joko klasikoak eraldatzeko eta beste ikuspuntu bat bilatzeko modua aztertu dugu.

Azterketa egin eta taldekieen artean iritziak elkarbanatu ostean, ideia ona iruditu zaigu mahai joko eraldakor bat egitea.

Horrela gure enpresak, beste enpresen artean leku bat irabazteko aukera izango duela uste dugu. Mahai joko gehienak asmatuta baitaude, baina ez mahai joko ezberdinak plazaratzeko formatua.

Gure produktuari ezberdintasun edo berezitasun batzuk egin dizkiogu, konpetentziarekiko ezberdina izateko.

Gure ustez gure produktuak eskaintzen dituen alternatibak, ez ditu eskaintzen merkatuan dagoen beste produktu batek, eta hori izango da gure abantaila besteez. Hau da, gure produktua, sektoreko beste produktuak baino bersatilagoa izango dela.

Gure berezitasuna beraz, lehen aipatu moduan, 3 jokuak tablero berberean jolastu ahal izatea da.

Gure diseinuak, moldakortasun handia eskainiko du, bolumen gutxiago okupatuz, joku gehiagotara jokatu ahal izango dugulako.

Horretarako, jokuaren pieza nagusia, hau da, tableroa, 3 jokuetan jolasteko prestatuta egongo da.

Bestalde, 2030. urterako Europa mailan hartu diren konpromezuetako bat ere beteko dugu. Hain zuzen ere gure sektoreari eragingo diona: **Produkzio eta kontsumo arduratsua**. Hau, hartu diren 17 konpromezuen artean 12. konpromezua da.

Horretarako, egiten dugun produktua, ekosistemarekin errespetagarria izango da. Gainera, bezeroak gure produktuaren atal bat bakarrik nahi badu, hori bakarrik erosteko aukera izango du. Hau da, gure bezeroak xakerako fitxak bakarrik nahi baditu, hori erosteko aukera izango du eta ez ditu mahai jokoaren 3 atalak/jolasak erosi behar. Honen bitartez kontsumo arduratsuago bat lortuko dugu, bezeroak behar duena bakarrik salduz.